

MUNGIALDEKO HERSKARIEN ETA AFRIKATUEN TXANDAKETAZ

Iñaki Gaminde

Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
igaminde@bips.bi.ehu.es

Abstract

In this article the author analyzes the alternation of occlusive and fricative consonants in the area of Mungia. In the first two sections, the analysis focuses on the distribution of occlusive and fricatives; the third section deals with the differences between villages; and the fourth section analyzes the acoustic relationship of variations between villages.

Laburpena

Artikulu honetan Mungialdeko herskarien eta afrikatuen txandaketak aztertzen dira. Lanaren lehen atal bietan herskarien eta afrikatuen banaketa aztertuko dugu, hirugarren atalean herrien arteko desberdintasunak ikusiko dira eta laugarren atalean herrien arteko aldakien erlazio akustikoa aztertuko da.

Hitz gakoak: Fonetika, akustika, dialektologia.

1. Sarrera

Artikulu honetan Mungialdeko lurraldean herskarien eta afrikarien artean gertatzen diren txandaketak ikertu gura ditugu. Helburua desberdintasun horien arabera sailkapen bat egitea da. Aspaldion hizkeren ezaugarrien arteko eraketak sano ugaldutako dira eta kasik edozer erkatzen dela esan dezakegu. Aldez aurretik ez dugu uste hizkeretan agertzen diren desberdintasunak denak erkagarriak direnik edo behintzat maila berean erka daitezkeenik. Onartzen badugu hizkuntza sistema bat dela, edo gurago bada gramatika bat dela, arau multzo batzuekin, multzo horiek guztiak ez daude maila berean eta batzuk beste batzuk baino errekurtsiboagoak dira, edo hizkuntzan garrantzi handiagokoak direla esan dezakegu. Hala bada, fonologian agertzen diren tasunak hizkuntzaren gainerako maila guztietan gertatuko dira. Morfologiaren arauak hauen gainean egongo dira, gero sintaxiaren ezaugarriak eta azkenik, azal-azalean, lexikoa eta lexikoari dagozkion aldaketa fonetikoak.

Eman dezagun "*barri/berr*" hartzen dugula batetik, eta "*alabia/alabie*" bestetik. Lehenengoa lexikoari dagokio, (fonetikari alegia) ez dago ezelako araurik "r"ren aurrean dauden "e" guztiak "a" bihurtarazten dituen. Aitzitik, "a" "e" aurreko bokal baten eraginez egitea arau fonologikoa da eta errekurtsiboa izango da, beti egingo da, hain zuzen. Gauza bera esan dezakegu diptongoen kasuan, esate baterako. Barietate batzuetan "au" "eu" egiteko joera handia egon arren (Bakion adibidez: *eurrie*, *eutobuse*, *eurki*, e.a.) ez dirudi araua denik, izan ere, "au" guztiak ez dira "eu" egiten (Bakion bertan: *au*, *ardau*, *dau*, *txarrau*, e.a.). Beste gauza bat da erdarazko partizipioak maillegatzeko dagoen araua, hau da, erdaraz "ado" denean Bakion beti egiten da "eu" salbuespen barik: *pentzeu*, *kanteu*, *altzeu*, *allegeu*, *topeu*, e.a. Berdin esan dezakegu monoptongazioen gainean; lexikoan, Bakiotik irten barik, "eu" batzuk monoptongatu egiten dira: "*neskidxo*", "*neke*", e.a.

Partizipioen azken "eu" laguntzailearen aurrean "e" egitea fonologiari dagokio: "*pentze dot*", "*allege nas*", "*kante deu*", e.a.

Maila bakoitzaren barruan fenomeno guztiak ez dira garrantzi batekoak, uste dugu hierarkia baten arabera ordenatu behar direla. Fonologian sakonen dagoen maila fonemen inventarioarena bera dela uste dugu; beronen gainean alofonoen dagozkien arau fonologikoen egongo lirake eta azkenik arau fonologikoen horien gauzatze desberdinak gertatzen direnean.

Gure lanaren lehen atal bietan herskarien eta afrikatuen banaketa aztertuko dugu, hirugarren atalean herrien arteko desberdintasunak ikusiko dira eta laugarren atalean herrien arteko aldakien erlazio akustikoa aztertuko da, izan ere, azalean desberdinak izan arren, aldaketa hauek naturalak eta hizkuntzaren joerakoak direla uste dugu.

2. Herskarien banaketa

Herskarietan serie bi agertzen dira barietate osoan; ahoskabeak eta ahostunak. Ahoskabeetan hiru agertzen zaizkigu /p/ ezpainbikoa, /t/ horzkaria eta /k/ belarea. Fonemok berbaren edozein egongunetan aurki ditzakegu, nahiz /p/ berbaren amaieran oso urria izan, "*ap*", "*eup*" eta "*aup*" moduko berbetan ager daiteke. Inventario hau leku guztietan berdina da.

Ahostunetan, berriz, herri eta auzo batzuetan lau fonema topa ditzakegu /b/ ezpainkaria, /d/ horzkaria /dd/ sabaikaria eta /g/ belarea. Fonema hauek berba hasieran eta /n/ren ostean baino ez dira agertzen. Gainerako kasu guztietan hurbilkari bihurtzen dira. Hurbilkaritze prozesu honek barietate honetan ez dauka garrantzi handirik, automatikoki egiten da eta; baina euskararen ikuspuntu orokor batetik kontutan hartu beharrekoa da, izan ere, Nafarroako eta Iparraldeko

barietate batzuetan ez da gertatzen. Kasu honetan beraz fonemen inbentario bi dauzkagu:


(a) b d dd g

(b) b d g

Barietate honetako auzo eta herrietan honela banatzen da inbentario hori (ikus 1. irudia):

(a) Gatika, Jatabe, Birle, Zabalondo, Belako eta Markaida; albo-herrietan, Lemoiz, Laukiz, Urduliz, Zamudio, Derio, Loiu, Lezama eta Larrabetzu

(b) Larrauri, Meñakabarrena, Mesterika, Emerando eta Bakio; albo-herrietan, Gamiz-Fika, Arrieta eta Fruiz.



1. Irudia: inbentarioen hedadura.

Gainerako alofonei bagazokie, artikulu honen helburuetarako garrantzitsuenak /t/ren palatalizazioa, /d/ren palatalizazioa eta /i/ bokalerdiaren kontsonantizazioa dira.

/t/ baldintza zehatz batzuetan palatalizatu egiten da barietatearen herri guztietan; palatalizazioa /i/ren ostean gertatzen da. Araua honela eman dezakegu:


+horz-->+sabai/i_____

Emaitzak, ostera, bi izan daitezke; leku batzuetan /tt/ egiten da eta beste batzuetan /tx/. Bakoitzaren hedadura honela eman dezakegu:

	tt	tx
Bakio	-	+
Mesterika	-	+
Larrauri	-	+
Belako	+	-
Birle	+	-
Jatabe	+	+
Urduliz	+	-
Arrieta	+	+
Gamiz	+	-
Emerando	-	+
Meñakabarrena	+	-
Markaida	-	+
Zabalondo	+	-
Gatika	+	-
Laukiz	+	-
Lemoiz	-	+
Fruiz	+	-
Fika	+	-

1. Taula: /t/ eta /x/ren banaketa.

Taulan ikusten den moduan herri batzuetan aldaketa ez da guztiz burutu; Jataben eta Arrietan biak agertzen dira eta ez dago arrazoirik hedadura auzoka banatzeko besteetan gertatzen den moduan. Bestalde, gainerako herri batzuetan /tt/ /tx/ bihurtzen hasi da gazteen artean, kasu honetan adina aldagaia izan daiteke; aldaketaren kontrako erreakzioa ere susmatzen da auzo batzuetan, esate baterako Belakon eta Meñakabarrenan "ittasoa" erabiltzen da hiperkorrekzioz. Edozelan ere, geografiaren arabera sailkatzeko hiru multzo nagusi egin dezakegu (ikus 2. irudia): (a) /tt/ Belako, Birle, Urduliz, Gamiz, Meñakabarrena, Zabalondo, Gatika, Laukiz, Fruiz eta Fika. (b) (tx) Bakio, Emerando, Mesterika, Larrauri, Markaida, Lemoiz. (c) biak /tt/ eta /tx/ Jatabe eta Arrieta. Kontutan har bedi Txorierriko herrietan ez dagoela palatalizaziorik.



2. Irudia.

/d/ren palatalizazioa leku batzuetan gertatzen da "ind" eta "ild" taldeetan: "inyarra", "inyabia", "ein yot",

"kikilyu", "mutilyu", "ilyeu", e.a. Araua sabaikari baten ondoan gauzatzen dela esan dezakegu; hots, lehenengo eta behin arau baten bidez /l/ eta /n/ palatalizatzen dira eta horren ondorioz /d/ palatalizatzen da:


+horz---> +sabai /+sabai_____

Arau honen hedadura taula honetan ikus daiteke:

	iny		iny
Bakio	+	Emerando	+
Meñakabarrena	+	Larrauri	+
Belako	+	Zabalondo	+
Gatika	+	Butroe	-
Laukiz	-	Urduliz	-
Arrieta	+	Fruiz	+
Fika	+	Lezama	-
Derio	-	Loiu	-
Mesterika	+	Markaida	+
Birle	+	Jatabe	+
Lemoiz	-	Gamiz	+
Zamudio	-	Larrabetzu	-

2. Taula: "iny" hedadura.

Taula honetako datuen arabera multzo bi bereiz ditzakegu (ikus 3. irudia): (a) /iny/ Bakio, Emerando, Mesterika, Meñakabarrena, Larrauri, Markaida, Belako, Zabalondo, Birle, Gatika, Jatabe, Arrieta, Fruiz, Gamiz eta Fika. (b) Butroe, Laukiz, Urduliz, Lemoiz, Lezama, Zamudio, Derio, Loiu eta Larrabetzu.



3. Irudia.

/i/ bokalerdiaren kontsonantizazioari dagokionez, Uriartek (1995:186) proposatuko bideari jarraituko diot. Uriarteren arabera Fruizen gertatzen diren ondokoaren arteko desberdintasunak adierazteko sakoneko formak /gastae/, /oe/ eta abar direla proposatu beharra dago:

	goi	Dxai	oe	gastae
+a	godxe	Dxadxe	oye	gastaye
+bat	goi bet	dxai bet	oi bet	gastai bet


4. Taula.

Fenomeno bera barietate honetako herri guztietan dugu; **Bakio**: *morroye, gastaye, godxe, sadxe*, e.a. **Meñaka**: *dxagoya, sugoya, gastaye, godxe, dxadxe*, e.a. **Mungia**: *beye, loye, goye, gastaya*¹, e.a. **Jatabe**²: *goye, loye, laye, baye*, e.a. **Gatika**: *goye, loye, beye, saye*, e.a.

Arau hauen ondorioz [j] hurbilkaria agertzen da herri batzuetan. Gainera Meñakako adibide honetan ikusten den moduan: "*bedxe*" (behia), "*beye*" (behea) fonemaren estatusa har dezake ere. Desberdintasunik handiena estatus honetatik dator, Gatikan, Jataben, Birle, Belakon eta Zabalondon [j] alofono hutsa den bitartean, Meñakabarrenan, Mesterikan, Larraurin, Emerandon eta Bakion fonema dugu. Ondoko mapan bakoitzaren hedadura ikus daiteke.

3. Afrikatuen banaketa

Herskarietan legez, afrikatuetan inbentario bi dauzkagu; batean /tz/ eta /tx/ baino ez dira agertzen eta bestean /tz/, /tx/ eta /dz/ agertzen dira. Herri eta auzoen arteko desberdintasunik handiena /dz/ erabiltzean datza. /dz/ daukaten herriak honako hauek dira (ikus 4. irudia): Larrauri, Meñakabarrena, Mesterika, Emerando eta Bakio; albo-herrietan Gamizen, Fikan, Fruizen eta Arrietan ere aurkitzen dugu.



4. Irudia.

/dz/ afrikatua da berbaren hasieran, bokalen artean agertzen denean, frikari bihurtzen da leku guztietan. /dz/ erabiltzen den herrietan bada /i/ eta beste bokal baten artean /dz/ txertatzeko arau bat: "*bidxar*", "*bidxotza*", "*bidxurtu*", "*ogidxe*", e.a.

¹ Mugatzailearen aldaketa zein den aztertzea beste lan baterako utziko dugu.

² Jataben eta Gatikan "i"ren kontsonantizazioa erroa silaba bakarra denean, mugatzailea eranstea, baino ez da gertatzen gainerako silaba kopuruekin mugatzailea guztiz asimilatzen da; adibidez: "*gastai*", "*arratoi*", "*balkoi*", e.a.

4. Herrien arteko desberdintasunak

Orain arte ikusi ditugun inbentario alorreko desberdintasunak eta arau fonologikoen eraginekoak gogotan erabilia, ezaugarri multzo nagusi bi erabil ditzakegu herrien arteko desberdintasunak adierazteko. Lehenengo multzoan fonemen inbentarioei dagozkien ezaugarriak kokatu behar ditugu; gure ustez hauek askoz garrantzitsuagoak dira hurrengoak baino. Bigarren multzoan arau fonologikoen eragineko desberdintasunak aztertuko ditugu.

Herskari, hurbilkari eta afrikatuaren inbentarioei dagokienez, honako hauek topatu ditugu:


(a)

p	t		k
b	d	dd	g
	tz	tx	

(b)

p	t		k
b	d		g
		j	
	tz	tx	
		dz	

Inbentarioetan ikusten den moduan; desberdintasunak sabaikarrietan agertzen dira. Honen arabera lurralde nagusi bi bereiz daitezke geografikoki 5. irudian agertzen den moduan:



5. Irudia.

Bigarren multzoko ezaugarrien artean alofonoak dagozkienak eman ditzakegu. Hauetariko batzuk bereizketarako ez dira erabilgarriak, izan ere, fonemen desberdintasunetan oinarritzen dira, esate baterako, /dd/ren hurbilkaritza edo /dz/ frikarizatza erredundanteak dira. Gauza bera esan dezakegu /i/ren kontsonantizazioari dagokionez, izan ere, beronen bidez fonema bat utzi dugu agirian. Beraz, erkatzeke geratzen

zaizkigun arauak bi baino ez dira; /t/ eta /d/ren palatalizazioak hain zuzen. Arau bi hauen artean bereiztu behar da batetik arau aplikatzen den ala ez eta bestetik zein den arauaren aplikazioaren emaitza. /d/ren palatalizatzean emaitza beti da bat, kontua da jakitea aplikatzen den ala ez; /t/ren palatalizatzean, ostera, arau aplikatuz gero, emaitza bi egon daitezke. Honen guztiaren arabera, ondoko eskala proposa dezakegu:

(a) Inbentario alorreko desberdintasunak

(b) Arau fonologikoen aplikazioa

(c) Arau fonologikoen emaitza desberdinak

Hona helduta, desberdintasunak antolatzeke eran datza ikerketen arteko desberdintasunik nabarmenena. Aurreko atalean ikusi dugunaren arabera antola ditzakegu desberdintasun horiek denak maila batekoak balira legez (Zuazo 1998); edo Aurrekoetxearen ildotik (1995) aldaketak hierarkikoki antolatuta daudela onar dezakegu. Gure ustez hizkuntzan agertzen diren aldakari guztiak ez dira maila berekoak; batzuk fonetikari dagozkio, are gehiago fonetika historikoari dagozkio eta ez daukate inongo zerikusirik hizkuntzaren sistemarekin; beste batzuk sistema fonologikoari dagozkio eta horren arabera sistemaren barruan jokatu behar da, ondo bereiziz zer den fonetika eta zer den fonologia; edo, gurago bada, zer dagokion gramatikaren antolakuntzari eta zer lexikoari.

Onartzen badugu eskala hau hierarkikoki antolatuta dagoela orduan Mungialdeko auzoak eta herriak, eta albo-herriak, honela sailkatuko genituzke:

	Inben. (a,b)	/d/ palataliza.
Bakio	b	+
Emerando	b	+
Mesterika	b	+
Meñakabarrena	b	+
Arrieta	b	+
Fruiz	b	+
Gamiz-Fika	b	+
Larrauri	b	+
Markaida	a	+
Belako	a	+
Zabalondo	a	+
Birle	a	+
Jatabe	a	+
Gatika	a	+
Butroe	a	-
Laukiz	a	-
Urduliz	a	-
Lemoiz	a	-
Loiu	a	-
Derio	a	-
Zamudio	a	-
Lezama	a	-
Larrabetzu	a	-

5. Taula: Herri eta auzoen banaketa.

	/t/ palataliza.	[tx]/[tt]
Bakio	+	tx
Emerando	+	tx
Mesterika	+	tx
Meñakabarrena	+	tt
Arrieta	+	tt/tx
Fruiz	+	tt
Gamiz-Fika	+	tt
Larrauri	+	tx
Markaida	+	tx
Belako	+	tt
Zabalondo	+	tt
Birle	+	tt
Jatabe	+	tt/tx
Gatika	+	tt
Butroe	+	tt
Laukiz	+	tt
Urduliz	+	tt
Lemoiz	+	tx
Loiu	-	
Derio	-	
Zamudio	-	
Lezama	-	
Larrabetzu	-	

6. Taula: Herri eta auzoen banaketa.

Lehen mailako sailkapenean lurralde argi bi agertzen zaizkigu (ikusi 1. mapa). Bigarren multzoko ezaugarrien arabera lehen zonaldea honela banatzen da:

(a1) Palatalizazio biak dauzkaten herriak: Markaida, Belako, Zabalondo, Birle, Jatabe, Gatika

(a2) /t/ren palatalizazioa baino onartzen ez dutenak: Butroe, Laukiz, Urduliz, Lemoiz

(a3) Palatalizaziorik ez daukatenak: Loiu, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu

(b1) Palatalizazio biak daukatenak: Bakio, Emerando, Mesterika, Meñakabarrena, Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Larrauri

Hirugarren multzoko ezaugarria erredundantea da palatalizazioa ez dagoen lurraldean. Horregatik a1, a2 eta b1 lurraldeetan baino ezin erabil daiteke.

5. Aldakien arteko erlazio akustikoak

Azpi-atal honetan /dd/ren eta /dz/ren artean dagoen erlazio akustikoa eta, bestetik, /tt/ren eta /tx/ren artean dagoena agerian utzi nahiko genituzke. Herskariaren leherketa barrarekin batera zarata eragiten da kontsonante hauek ebakitzean. Euron arteko erlazioa zarata horren luzeeraren arabera izaten da. Ahoskabetan hutsune baten ostean leherketa gertatzen da eta zarata hori; ahostunetan, osterata, aho-korden dardarak eragineko bibrazioen ostean gertatzen da leherketa.

Lisker & Abramson-en (1964) arabera ahoskabe/ahostun edo-ta hasperengabe/hasperendun bereizkuntzan ezaugarri fonetiko nagusia ahotsaren

hasieragunea edo, ingelesez, voice onset time (VOT) bezala ezagutzen dena da. Herskari bat ahoskatzerakoan, bi fase ditugu: hersketa eta leherketa. Herskariaren ondoren bokal bat badaukagu, ahots-korden dardar periodikoa hiru momentu desberdinetan has daiteke:

1. Ahots-korden dardarra kontsonantearen leherketa baino lehen hasten bada, herskari ahostun bat izango dugu, [ba da ga].

^^^^^^^^^^ || ^^^^^^^^^^^^^^^

2. Ahots-korden dardarra leherketarekin batera edo apur bat beranduago hasten bada, herskari ahostun hasperengabea izango dugu, [pa ta ka].

_____ || _____ ^^^^^^^^^^^

3. Azkenik, ahots-korden dardarra leherketa baino beranduxeago has daiteke. Hirugarren kasu honetan leherketaren eta uhin periodikoaren hasieraren artean hasperenketa izango dugu ondorioz eta gauzatzen den herskaria ahoskabea eta hasperenduna izango da, [pha tha kha]³.

_____ || _____ ^^^^^


VOT delakoaren arabera, ahotsaren dardarra leherketa baino lehen hasten bada (1 kasua), VOT negatiboa izango dugu. Beste bi kasuetan, hurrenez hurren, VOT positibo laburra (2), eta VOT positibo luzea (3), izango ditugu.

Esan duguna hasierako gunean dauden herskariak dagokie. Beste ingurune batzuetan kontraste fonologikoa beste ezaugarri fonetiko batzuen bidez gauzatzen da. Hasierako egongunean VOT hori neurtuz gero, Gatican honelako emaitzak daukagu (ikus 6. irudia):

/p/	/t/		/k/
14,6	24,1		31,9
/b/	/d/	/dd/	/g/
-96,1	-105,2	-117,6	-121,9

7. Taula: Gatikako herskariaren VOT-a.


³ Ikusi Gaminde, Hualde eta Salaberria (2002).




6. Irudia.

/dd/ren kasuan VOTa nahikoa luzea da eta daukan zarata luzatuz gero ebakitzeko moldean aldaketa lortuko genuke; herskari izatetik afrikatua izatera pasatuz. 7. eta 8. irudietako espektogrametan Meñaka eta Gatikako adibide bana ikus daitezke:


Gorago esaneko moduan herskariak badauka alofono hurbilkaria bokalen artean eta afrikatuak bere alofono frikaria egongune berean. 9. eta 10. irudietako espektogrametan alofono biak ikus daitezke:




9. Irudia: Gatikako “goye”.



7. Irudia: Gatikako “yo”




10. Irudia: Meñakako “eridxotzia”.



8. Irudia: Meñakako “dxo”


Era berean /tt/ eta /tx/ren artean dagoen txandaketa, herskariaren leherketa barraren ondoan dagoen zarataren handitzearekin erlazionatzen da. 11. eta 12. irudietako espektogrametan ikusten den moduan Gatikako /tt/ eta Meñakako /tt/ ez dira berdinak; Gatican leherheta barra eta honen ondoko zarata askoz laburragoa da (28 ms.) Meñakan baino (42 ms.).



11. Irudia: Meñakako “aittu”.




14. Irudia: Meñakako “gatxa” (65 ms.)




12. Irudia: Gatikako “geittu”.


Zarata handituz gero afrikatu bat lortuko litzateke, ondoko irudietako espektogrametan Meñaka eta Gatikako /tt/ eta /tx/ren arteko aldeak ikus daitezke.



15. Irudia: Gatikako “geittu” (28 ms.)



13. Irudia: Meñakako “aittu” (42 ms.).



16. Irudia: Gatikako “gatxa” (43 ms.).

Datuetan ikusten den moduan, inguru honetako herrietan agertzen diren aldaki guztiek euren artean estuki erlazionatuta daude. Bestalde, hizkuntza dinamikoa izanik, aldaketa prozesuak ez dira guztiz burutu, orain burutzen ari dira gure begien aurrean. Prozesu guzti honetan /tt/ da txaroten dagoena eta

atzeraka dabilena, batez ere kontutan hartzen badugu gazteen artean gero eta gutxiago erabiltzen dela.

6. Aipamenak

Aurrekoetxea, Gotzon (1995). *Bizkaieraren Egituraketa Geolinguistikoa*. Leioa: UPV-EHU.

Gaminde, Iñaki, Hualde, José Ignacio eta Salaberria, Jazone (2002). Zubereraren herskariak: azterketa akustikoa. (Lapurdum-en agertzeko)

Lisker, Leigh & Arthur Abramson (1964). "A cross-language study of voicing in initial stops: acoustical measurements." *Word* 20:384-422.

Uriarte, Jon Andoni (1995). *Fruizko Hizkera: Azterketa Linguistikoa*. Doktorego Tesia, Deustuko Unibertsitatea.

Zuazo, Koldo (1998). "Euskalkiak, gaur." *FLV* 78:191-234.